



Espediente zk./Nº Expediente: 2022IUBA0004

Gaia/Asunto: 2022/04/26 Ohiko Udalbatzarra/Pleno Ordinario del 26/04/2022

Udalbatzak 2022ko apirilaren 26an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.

Acta de la sesión ordinaria de Pleno de la Corporación celebrada el día 26 de abril de 2022.

Errenteriako Udaletxean, 2022ko apirilaren 26ko 18:30ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondorengo zinegotziak elkartu dira:

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 18:30 horas del día 26 de abril de 2022, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las y los siguientes Concejales y Concejales:

EH Bildu Orereta/Errenteria

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Itziar OSTOLAZA GALDOS
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Bernar LEMOS TABERNA
- Garazi LOPEZ DE ETXEZARRETA AUZMENDI
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Jose Ramon GURRUTXAGA ZUBIZARRETA
- Iñaki QUERALT COIRA

EH Bildu Orereta/Errenteria

- Alazne KORTA ZULAIKA
- Itziar OSTOLAZA GALDOS
- Eñaut GRACIA IBARRA
- Bernar LEMOS TABERNA
- Garazi LOPEZ DE ETXEZARRETA AUZMENDI
- Eneko DEL AMO JIMÉNEZ
- Jose Ramon GURRUTXAGA ZUBIZARRETA
- Iñaki QUERALT COIRA

Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)

- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Montserrat LUIS CANO
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Yosleidy Cristina FERRERA CEDEÑO
- Iñaki RUIZ ALONSO

Euskal Sozialistak/Socialistas Vascos (ES-SV)

- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Montserrat LUIS CANO
- Isaac PALENCIA CABALLERO
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- Yosleidy Cristina FERRERA CEDEÑO
- Iñaki RUIZ ALONSO

EAJ-PNV

- Maite PEÑA LÓPEZ
- Elixabete MURUA MINDEGUIA
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

EAJ-PNV

- Maite PEÑA LÓPEZ
- Elixabete MURUA MINDEGUIA
- Garbiñe OYARBIDE IRURETAGOYENA

Elkarrekin Errenteria

- Maite GARTZIA ONTIVEROS
- José Manuel FERRADÁS FREIJO

Elkarrekin Errenteria

- Maite GARTZIA ONTIVEROS
- José Manuel FERRADÁS FREIJO



- Xabier SÁNCHEZ AGUIREGOMEZCORTA

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkaria.

Era berean, bertan dago Irune Soto Cotorro udal Kontuhartzailea.

1. 2022ko martxoaren 29ko ohiko bilkurari dagokion akta irakurri, eta egoki bada, onartzea. (2022IUBA0003)

Oharrik gabe onartu da.

2. Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak eta Zinegotzi-ordezkarienak, 614 zk.tik 782 zk.ra, (biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3. Berri ematea: 2021eko Errenteriako Udaleko Aurrekontu orokorren likidazioa. (2021SALK0001)

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

4. Proposamena: 2022ko Ordenantza fiskalen 2.aldaketa. (2022SOFF0002)

2022ko Ordenantza Fiskalak hasiera batean 2021eko urriaren 26an onartu zituen Udalbatzarrak, eta 2022ko urtarrilaren 1ean sartu ziren indarrean.

2022ko otsailaren 22ko Udalbatzak 2022rako

- Xabier SÁNCHEZ AGUIREGOMEZCORTA

Asiste y da fe del Acto La Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

Igualmente asiste la Interventora Municipal Irune Soto Cotorro.

1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 29 de marzo de 2022. (2022IUBA0003)

Se aprueba sin observación alguna.

2. Dar cuenta de Resoluciones de la Alcaldesa y de Concejales Delegados, nºs 614 al 782 (ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

El Pleno queda enterado.

3. Dar cuenta: Liquidación de Presupuestos Generales 2021 del Ayuntamiento de Errenteria. (2021SALK0001).

El Pleno queda enterado.

4. Propuesta: 2ª modificación de las Ordenanzas Fiscales del año 2022. (2022SOFF0002)

Las Ordenanzas Fiscales de 2022 fueron aprobadas inicialmente por el Pleno municipal el 26 de octubre de 2021 y entraron en vigor el 1 de enero de 2022.

El Pleno Municipal en sesión celebrada el 22 de



Ordenantza Fiskalen 1. Aldaketa puntuala onartu zuen.

febrero de 2022 aprobó la 1º Modificación puntual de las Ordenanzas Fiscales para el año 2022

Ikusirik, Ogasuneko Delegatuak egindako proposamena erabiltzaileen ahalmen ekonomiakoaren arabera tasa eta prezio publiko jakin batzuen tarifak kalkulatzean progresibotasuna sartzeko.

Vista la Propuesta realizada por la Delegada de Hacienda para introducir la progresividad en el cálculo de tarifas de determinadas tasas y precios públicos en función de la capacidad económica de las personas usuarias.

Ikusirik sail desberdinek ematen dituzten zerbitzuei dagokienez, eta espedientean agertzen diren, egin dituzten proposamenak.

Vistas las propuestas realizadas por los diferentes departamentos relativas a los servicios que prestan que constan en el expediente.

Ikusirik 2022ko apirilaren 1eko diruzainaren txostena

Visto el informe de la tesorera de fecha 1 de abril de 2022

Ikusirik 2022ko apirilaren 1eko Udal aholkulari juridikoaren txostena idazkariordearen oniritziarekin.

Visto el informe del asesor jurídico municipal de fecha 1 de abril de 2022 conformado por la Secretaria Acctl.

Ikusirik, 2022ko apirilaren 1eko Udal Kontuhartzailearen txostena.

Visto el informe de la Interventora municipal, de fecha 1 de abril de 2022.

ZUZENBIDE OINARRIAK

LEGISLACIÓN APLICABLE

* Gipuzkoako Toki Ogasunak Arautzeko 11/1989 Foru Araua, uztailearen 5koa.

* Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

* 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

* Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local

Ogasuneko zinegotzi delegatuak egindako erabaki proposamena eta kontuhartzaileak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Vista la propuesta de acuerdo de la Delegada de Hacienda, y la conformidad dada por la Interventora a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

2022ko apirilaren 6an, Ogasuneko Zinegotzi Delegatuak proposatuta, Antolaketa batzordeak gai honen aldeko irizpena eman dio.

Visto que en fecha 6 de abril de 2022, a propuesta de la Delegada de Hacienda, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

Udalbatzak, aldeko 18 botoren gehiengoarekin EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV) eta Elkarrekin Errenteria)

El Pleno de la Corporación por mayoría de 18 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV) eta Elkarrekin



eta 3 abstentzioekin (EAJ/PNV), hau erabaki du:

Errenteria) y 3 abstenciones (EAJ/PNV).

ERABAKIA

ACUERDA

1.- ONARTZEA aurkeztutako Ordenantza fiskalen aldaketen hasierako onspena, ondoren adierazten diren zehaztapenaz eta eranskinean agertzen den behin betiko testuaz

1.- APROBAR inicialmente la propuesta de modificación de las ordenanzas fiscales relativas a las tasas y precios públicos que se detallan y cuyo texto definitivo se recoge en el anexo.

3.-ONDORENGO ZERBITZUAK ESKAINI ETA AKTIBITATEAK EGITEAGATIKO TASAK.

3.-TASAS POR PRESTACIÓN DE LOS SERVICIOS Y LA REALIZACIÓN DE LAS ACTIVIDADES SIGUIENTES.

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea.

Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas.

3.09.- Errenteria Musikaleko Zerbitzuak Eskaintzea.

3.09.- Prestación De Servicios En Errenteria Musikal.

4.- PREZIO PUBLIKOA: ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA.

4.- PRECIO PÚBLICO: ORDENANZA REGULADORA DE LOS PRECIOS PÚBLICOS POR LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS O LA REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES MUNICIPALES.

4.1. Prezio Publikoa: Udal Ondasunen Aprobetxamendua.

4.1. Precio Público: Aprovechamiento de Bienes Municipales.

4.2. Precio Público: Udal Lokalak Erabiltzea.

4.2.- Precio Público: Utilización de Locales Municipales.

4.3. Prezio Publikoa: Uztargi Haurreskolan Jangela Zerbitzua

4.3.- Precio Público De Servicio De Comedor En Uztargi Haurreskola

4.6. Prezio Publikoa: Udal Tailer Ezberdinek Eskaintzen Ditutzen Zerbitzuen Erabilpena.

4.6.- Precio Público: Utilización De Los Servicios Ofrecidos Por Los Diversos Talleres Municipales.

4.7. Prezio Publikoa: Udako Oporrak, Udal Ludotekak eta Familia Gunea zerbitzuetan parte hartzea.

4.7.- Precio Público: Participación En Los Programas Udako Oporrak, Ludotecas Municipales Y Familia Gunea.

2.- Akordioa JENDAURREAN JARTZEA 30 lanegunez, epe horretan erreklamazio zein iradokizunak egin ahal izan daitezten. Iragarkia Udalaren Iragarki Oholean, udal web orrian,

2.- SOMETER el acuerdo a información pública por el plazo de 30 días hábiles, a efecto de reclamaciones y observaciones que pudieran deducirse, publicándose el correspondiente anuncio en el Tablón de Edictos



Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako hedapenik handienetakoa den egunkarietatik gutxienez batean argitaratuko da.

3.- Ordenantza fiskalen aldatetaren inguruko erabakia **BEHIN BETIKOA IZANGO** da, eta beraz ez du erabaki berririk behar, baldin eta jendaurreko informazio epea amaitu ondoren ez bada erreklamaziorik jaso, eta indarrean sartuko da ordenantza aldatetaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren.

del Ayuntamiento, la web municipal, el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y al menos un diario de los de mayor difusión de Gipuzkoa.

3.- El acuerdo adoptado sobre la modificación de las ordenanzas fiscales **DEVENDRÁ DEFINITIVO**, sin necesidad de nuevo acuerdo, si transcurrido el plazo reglamentario de la información pública no se hubiera producido reclamación alguna, y entrará en vigor tras la publicación de su texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

5. Proposamena: Haur Hezkuntzako Beraun Berri (Aldakoenea) eraikinaren desafektazioa. (2022OJUA0001)

5. Propuesta: Desafectación del edificio destinado a educación infantil Beraun Berri (Aldakoenea) (2022OJUA0001)

2014ko martxoaren 18an, Gobernu Kontseiluak erabaki zuen fusionatzea CEIP Beraun Berri HLHI (kodea: 012906 eta 20008544) eta CEIP Langaitz Ikastola HLHI (kodea: 012356 eta 20008490), biak ere Erreterian (Gipuzkoa) zeuden Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoak; hala, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko berri bat sortu zuen, CEIP Bizarain Ikastola HLHI izenekoa (kodea: 013522 eta 20014994), eta lehengo bi ikastetxeak desagerrarazi.

Bat-egite horren ondorioz, Bizarain ikastetxe publiko berriak utzi egin zion Beraun Berri Haur Hezkuntzako eraikina (Aldakoenea) erabiltzeari, eta, beraz, libre geratu zen beste erabilera, zerbitzu edo helburu batzuetarako erabili ahal izateko.

2015eko uztailaren 15eko lankidetzaren hitzarmen baten bidez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak baimena eman zion Erreteriarako Udalarari eraikin hori beste erabilera, zerbitzu edo helburu batzuetarako erabiltzeko.

Udalaren asmoa da eraikin horretan Zentro Polifuntzional bat ezartzea, herritarrei zenbait

Con fecha 18 de marzo de 2014 el Consejo de Gobierno acordó fusionar los centros públicos de Educación Infantil y Primaria CEIP Beraun Berri HLHI (código 012906 y 20008544) y CEIP Langaitz Ikastola HLHI (Código 012356 y 20008490), ubicados ambos en el municipio de Erretería (Gipuzkoa), creando un nuevo centro público de Educación Infantil y Primaria denominado CEIP Bizarain Ikastola HLHI (Código 013522 y 20014994), quedando suprimidos los dos antiguos centros.

Con motivo de esta fusión, el nuevo Centro Público Bizarain dejó de utilizar el edificio destinado a Educación Infantil Beraun Berri (Aldakoenea), quedando, por tanto, libre para poder ser utilizado para otros usos, servicios o finalidades.

Mediante un Convenio de Colaboración de fecha 15 de julio de 2015, el Departamento de Educación Política Lingüística y Cultura autorizó al Ayuntamiento de Erretería la utilización del citado edificio para otros usos, servicios o finalidades.

El Ayuntamiento tiene previsto instalar en este edificio un Centro Polifuncional, en el que se prestarían diversos



zerbitzu emateko (herritarrei arreta, gizarte zerbitzuak, etab.). Hortaz, erabilera hori iraunkorra eta etengabea izango denez, egokia da eraikina behin betiko edukitzea, hezkuntza-zerbitzutik desafektatuta.

servicios a la ciudadanía (servicio de atención a la ciudadanía, servicios sociales, etc), por lo que resulta adecuado, dado el carácter duradero y permanente de este uso, disponer definitivamente del edificio desafectándolo del servicio educativo.

Hezkuntza eta Gazteria Teknikariak, txostena egin du.

Visto el informe de la Técnico de Educación y Juventud.

Hezkuntzako Delegatuak proposamena egin du.

Vista la propuesta de la Delegada de Educación.

Kontratazio eta Ondareko arduradunak txostena egin du, eta Idazkariak oniritzia eman dio.

Visto el informe emitido por el Responsable de Contratación y Patrimonio y la nota de conformidad de la Secretaria General.

Kontuhartzaileak txostena egin du.

Visto el informe de la Interventora.

ZUZENBIDE OINARRIAK

FUNDAMENTOS DE DERECHO

- Toki-Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legearen 47.2.n art.

- Ley de Bases de Régimen Local: art.47-2-n

- Toki Erakundearen Ondasunen araudiaren 8 artikulua.

- Reglamento de Bienes de las Entidades Locales: art. 8 del reglamento de Bienes de las Entidades Locales

Kontratazio eta Ondare Azpisaileko Zinegotzi Delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Kontratazio eta Ondarea Azpisaileko Arduradunak espedientean jasotak erabaki-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Vista la propuesta de acuerdo del Concejal Delegado de la Subárea de Contratación y Patrimonio, y la conformidad dada por el Responsable de la Subárea de Contratación y Patrimonio a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

2022ko apirilaren 6an, Kontratazio eta Ondare Azpisaileko Zinegotzi Delegatuak proposatuta, Antolaketa batzordeak gai honen aldeko irizpena eman dio.

Visto que en fecha 6 de abril de 2022, a propuesta de el Concejal Delegado de la Subárea de Contratación y Patrimonio, la Comisión de Organización dictamina favorablemente el presente asunto.

Udalbatzak, aldeko 18 botoren gehiengoarekin EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV) eta Elkarrekin Errenteria) eta 3 abstentziorekin (EAJ/PNV), hau erabaki du:

El Pleno de la Corporación por mayoría de 18 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV) eta Elkarrekin Errenteria) y 3 abstenciones (EAJ/PNV).

ERABAKIA

ACUERDA

1.- Administrazio-espedientea HASTEA Beraun Berri Haur Hezkuntzako eraikinari (Aldakoenea) kalifikazio

1º.- SE INCOE expediente administrativo para alterar la calificación jurídica del edificio destinado a



juridikoa aldatzeko eta aldaketa horri hasierako onespina ematea. Jabari publikotik desafektatu, eta ondare-ondasun gisa kalifikatuko da .

2.- Aldez aurreko baimena ESKATZEA Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, Beraun Berri Haur Hezkuntzako eraikineko instalazioak (Aldakoenea) irakaskuntza-zerbitzu publikotik desafektatzeko.

3.- Eusko Jaurlaritzaren aldez aurreko baimena lortu ondoren, JENDAURREAN JARTZEA espedientea hilabeteko epean Udalaren iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, egoki iritzitako alegazioak egin ahal izateko.

4.- Jendaurreko izapidean erreklamaziorik aurkezten ez bada, instalazio horien kalifikazio juridikoaren aldaketa behin betiko onetsizat joko da .

5.- Aipatutako instalazioak ERABILTZEA Zentro Polifuntzional bat ezartzeko, herritarrei zenbait zerbitzu emateko.

6.- Alkate-udalburuari AHALMENA EMATEA behar diren agiri guztiak sinatzeko, baita ondasunaren harrera-egintza formala egiteko ere, ondare gisa.

6. EH Bildu Orereta/Errenteriak eta Elkarrekin Errenteriak aurkeztutako mozioa, Mendebaldeko Saharako gatazkari buruzkoa. (2022IMOZ0008)

Ondoko mozioa irakurri dute:

Educación infantil Beraun Berri (Aldakoenea), aprobando inicialmente dicha alteración y desafectándola del dominio público, quedando calificada como bien patrimonial.

2º.- SE SOLICITE de la Consejería de Educación del Gobierno Vasco, la autorización previa a la desafectación del servicio público de enseñanza de las instalaciones del edificio destinado a Educación infantil Beraun Berri (Aldakoenea).

3º.- SE SOMETA el expediente, una vez se obtenga la autorización previa del Gobierno Vasco, a información pública por plazo de un mes en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento y Boletín Oficial del Territorio Histórico de Gipuzkoa, para que puedan formularse las alegaciones que se estimen convenientes.

4º.- De no formularse reclamaciones durante el trámite de información pública, se considerará aprobada definitivamente al alteración de la calificación jurídica de las citadas instalaciones.

5º.- SE DESTINEN a las instalaciones de continua referencia, a la implantación de un Centro Polifuncional para prestar diversos servicios a la ciudadanía.

6º.- SE FACULTE al Sra. Alcaldesa-Presidenta para la firma de cuantos documentos sean pertinentes, incluso para la recepción formal del bien con el carácter de patrimonial.

6. Moción presentada por EH Bildu Orereta/Errenteria y Elkarrekin Errenteria en relación con el conflicto del Sahara Occidental. (2022IMOZ0008)

Leída la siguiente moción:



Espainiako Gobernuak errotik aldatu du bere jarrera Mendebaldeko Saharako gatazkari dagokionez, Nazio Batuen ebazpenak eta Nazioarteko Zuzenbidea bera ere urratuz.

Mendebaldeko Sahara Espainiaren kolonia izan zen 1885etik 1975era, eta 53. probintzia izatera iritsi zen 1958tik. Marokok 1975ean okupatu bazuen ere, Fronte Polisarioaren erresistentziarekin, Espainia deskolonizatzeke zegoen lurralde baten potentzia administratzaile hartu du uneoro NBE Nazio Batuek Erakundeak Orduetik 1991ra arte gerra izan zen, urte horretan bi aldeek su-etena sinatu baitzuten autodeterminazio-erreferenduma egiteko asmoarekin.

Baina erreferendum hori egin gabe dago oraindik, eta 2005etik Marokok bere jarrera aldatu du, eta Saharari autonomia eskaini dio, Nazio Batuen aldetik hamaika aldiz autodeterminazio-erreferendum baten alde egindako ebazpenek diotenaren aurkako nazioarteko legedia urratuz.

Izan ere, EBko Justizia Auzitegiak 2015eko abenduaren 10eko erabakian adierazi zuen Mendebaldeko Sahara ez dagoela “Marokoren nazioarteko mugen barruan (232. puntua), Marokoko Erresumak ez duela Nazio Batuen edo nazioarteko beste erakunde baten agindurik Mendebaldeko Sahara administratzeko (233. puntua)”, eta “Marokoko Erresumak Mendebaldeko Sahararen gainean duen subiranotasuna baliogabea dela, eta ez duela onartzen ez EBk ezta Nazio Batuek ere (241. puntua). Epai hori Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak berretsi zuen 2021eko irailaren 29an, argi eta garbi: Mendebaldeko Saharako lurraldeak eta Marokokoak desberdinak dira, eta haien jardura ekonomikoen onura guztiek Sahara herriarenak izan behar dute.

Nazio Batuek ezarritako ildoen barruan ikuspegi zabala, arduratsua eta elkarrizketazkoa merezi duen egoera baten aurrean, Espainiako gobernuaren

El Gobierno español ha cambiado radicalmente su postura respecto al conflicto del Sáhara Occidental, violando incluso las resoluciones de Naciones Unidas y el propio Derecho Internacional.

El Sáhara Occidental fue colonia española de 1885 a 1975 y llegó a ser la provincia número 53 desde 1958. Pese a la ocupación marroquí en 1975, con la resistencia del Frente Polisario, España ha sido considerada en todo momento como la potencia administradora de un territorio por descolonizar. La ONU mantiene desde entonces la guerra hasta 1991, año en el que ambas partes firmaron un alto el fuego con la intención de celebrar un referéndum de autodeterminación.

Pero ese referéndum sigue sin celebrarse y desde 2005 Marruecos ha cambiado su postura y ha ofrecido autonomía al Sáhara, violando la legislación internacional contra lo que dicen sus resoluciones a favor de un referéndum de autodeterminación en once ocasiones por parte de Naciones Unidas.

En efecto, el Tribunal de Justicia de la UE en su Decisión de 10 de diciembre de 2015 declaró que el Sáhara Occidental no se encuentra dentro de las fronteras internacionales de Marruecos (punto 232), que el Reino de Marruecos no tiene órdenes de Naciones Unidas u otro organismo internacional para administrar el Sáhara Occidental (punto 233) y que la soberanía del Reino de Marruecos sobre el Sáhara Occidental es nula y no reconocida ni por la UE ni por las Naciones Unidas (punto 241). Esta sentencia fue confirmada claramente por el Tribunal de Justicia de la Unión Europea el 29 de septiembre de 2021: los territorios del Sáhara Occidental son distintos a los de Marruecos y todos los beneficios de sus actividades económicas deben pertenecer al pueblo saharauí.

Ante una situación que merece una visión amplia, responsable y dialogante dentro de las líneas marcadas por Naciones Unidas, la posición del



jarrerak erabat neutrala izan behar du. Izan ere, alderdien arteko bitartekaritza egiteko neutraltasun jarrera horrek NBEren barnean, Mendebaldeko Sahararen lagunen taldean sartzea ahalbidetu zuen, NBEren Segurtasun Kontseiluan beto eskubidea duten bost herrialdeetatik laurekin batera (AEB, Errusia, Erresuma Batua, Frantzia eta Espainia).

Komunikabide batzuen arabera, Pedro Sanchez Espainiako Gobernuak presidenteak gutun bat bidali dio Mohamed VI erregeari, Marokok 2007an Saharako egin zuen autonomia-erregimenaren proposamena gatazka konpontzeko proposamenik serioena, errealistena eta sinesgarriena dela esanez. Jose Manuel Albares, Atzerri, Europar Batasuneko eta Lankidetzako ministroak berak informazio hori baieztatu du.

Abdulah Arabi, Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkariak adierazi duenez, Espainiako Gobernuak urteak daramatza Marokori etengabe atsegin ematen saiatzen, bere ustez deskolonizatzeko dagoen lurralde bateko potentzia administratzaile gisa ez dagokion anbiguotasunarekin jokatu. Arabik berretsi du erreferenduma egin behar dela saharar herriak erabaki dezan.

gobierno español debe ser absolutamente neutral. De hecho, esa actitud de neutralidad en la mediación entre las partes permitió integrarse en el grupo de amigos del Sáhara Occidental dentro de la ONU, junto a cuatro de los cinco países con derecho a veto en el Consejo de Seguridad de la ONU (EEUU, Rusia, Reino Unido, Francia y España).

Según algunos medios de comunicación, el presidente del Gobierno español, Pedro Sánchez, ha enviado una carta al rey Mohamed VI en la que asegura que la propuesta de régimen autonómico que Marruecos hizo en 2007 para el Sáhara es la propuesta más seria, realista y creíble para resolver el conflicto. El propio ministro de Exteriores, Unión Europea y Cooperación, José Manuel Albares, ha confirmado esta información.

Abdulah Arabi, delegado del Frente Polisario en España, ha señalado que el Gobierno español lleva años intentando complacer constantemente a Marruecos actuando con una ambigüedad que, a su juicio, no le corresponde como potencia administradora de un territorio por descolonizar. Arabi insiste en la necesidad de celebrar un referéndum para que el pueblo saharauí decida.

AKORDIOAK

1- Bere kezka adierazi nahi du Espainiako Gobernuak babesa ematen diolako Marokoko Erresumak Sahararen autonomiari buruz egindako proposamenari.

2- Errenteriako Udalak NBEren Segurtasun Kontseiluaren 2602 zenbakiko Ebazpena, 2021eko urriaren 29koa, babestea. Ebazpen horretan berretsi egiten da alde guztientzat "irtenbide politiko bidezkoa, iraunkorra eta onargarria" lortzeko konpromisoa, eta "Mendebaldeko Saharako herriaren determinazio askea aurreikusten duena".

ACUERDOS

1- Quiere expresar su preocupación por el apoyo del Gobierno español a la propuesta del Reino de Marruecos sobre la autonomía del Sáhara.

2- Apoyo del Ayuntamiento de Errenteria a la Resolución nº 2602 del Consejo de Seguridad de la ONU, de 29 de octubre de 2021. En esta resolución se reafirma el compromiso con una "solución política justa, duradera y aceptable" para todas las partes y que "prevé la libre determinación del pueblo saharauí".



3- Espainiako Estatuak lotura historiko eta afektiboa duela Mendebaldeko Saharako gatazka politikoan, eta, horregatik, Espainiako Gobernuari eskatzen dio Nazio Batuen Erakundearen, EBn eta gainerako nazioarteko erakundeetan modu aktiboan lagundu eta jardun dezala gatazkaren konponbidearen alde, Nazioarteko Zuzenbidearen eta NBEren ebazpenen arabera beti ere. Ildo horretan, Gobernuari eskatzen dio babestu ditzala NBeko ordezkariaren, Staffan de Misturaren, lana aldean arteko negoziazio-prozesu politikoari berriro ekiteko.

4- Errenteriako Udalak saharar herriari udalerrri honen babesa helarazten dio, hainbat hamarkadako elkartasunaren, laguntza humanitarioaren eta haurren harreraren alde egin ondoren.

5- Udal honek akordio hauek helaraztea legegintzako gorteei (Kongresua eta Senatua) eta NBEren Lehen, Hirugarren eta Laugarren Batzordeei.

Udalbatzak, aldeko 15 botoren gehiengoarekin (EH Bildu Orereta/Errenteria, EAJ/PNV, Elkarrekin Errenteria) eta aurkako 6 botorekin (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV)), hau erabaki du:

ERABAKIA

Onartzea EH Bildu Orereta/Errenteriak eta Elkarrekin Errenteriak aurkeztutako mozioa, Mendebaldeko Saharako gatazkari buruzkoa. (Testu hori erabaki honen azalpen zatian jasota dago).(2022IMOZ0008)

7. Galdera Eskariak.

Ez da galderarik edo eskaerarik egin.

3- Que el Estado español mantiene una vinculación histórica y afectiva en el conflicto político del Sáhara Occidental, por lo que insta al Gobierno español a colaborar y actuar activamente ante Naciones Unidas, la UE y demás organismos internacionales en favor de la resolución del conflicto, de acuerdo con las resoluciones del Derecho Internacional y de la ONU. En este sentido, insta al Gobierno a apoyar la labor del representante de la ONU, Staffan de Mistura, para retomar el proceso político de negociación entre las partes.

4- El Ayuntamiento de Errenteria traslada al pueblo saharaui el apoyo de este municipio tras décadas de solidaridad, ayuda humanitaria y acogida de niños.

5- Que este Ayuntamiento transmita los siguientes acuerdos a las Cortes legislativas (Congreso y Senado) y a las Comisiones Primera, Tercera y Cuarta de la ONU.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 15 votos a favor (EH Bildu Orereta/Errenteria, EAJ/PNV, Elkarrekin Errenteria) y 6 votos en contra (Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos (ES-SV)),

ACUERDA

Aprobar la moción presentada por EH Bildu Orereta/Errenteria y Elkarrekin Errenteria en relación con el conflicto del Sahara Occidental, que consta en la parte expositiva del presente asunto. (2022IMOZ0008)

7. Ruegos y preguntas.

No se produce ruego ni pregunta alguna.



Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 19:05 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 19:05 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 2022ko apirilaren 26a

Errenteria, 26 de abril de 2022

Idazkaria / La Secretaria

Nagore Sarasola Otermin



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU7e8adab0-951f-406a-8ee2-985de07d8096**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IUUBA0004-AKTA/ACTA (Errenteriako Udala)